

NOR GAREN

Xakelariak gara. Klub eta belaunaldi ezberdinetatik gatoz, eta hori erabat positiboa izan da, talde gaztea, plurala, esperientziaduna eta biltzailea sortu baitugu, honako proiektu komun hau duen taldea: Gipuzkoan xakea berpiztea.

Hauek dira gure izenak: Aitor Gonzalez, Iñigo Galarza, Erik Juez, Oscar Diez eta Iker Arri.

Gure proiektua, eta gure Zuzendaritza Batzordea, edozein pertsonaren ekarpenak biltzeko prest daude: hautagaitza plurala gara, Errenteria, Zarautz, Beasain eta Hondarribiko xakelariak eratua, baina xakearen alde lan egin nahi duen edozein talde bertara batu daiteke.

ZERGATIK AURKEZTEN GAREN

Xake klubaren antzinako espirituan, talde-lanean eta landu dugun xake-programan sinisten dugulako.

Gipuzkoan xakeak zuen tradizio eta ospe soziala berreskuratu nahi dugulako.

Edozein kirolean oso garrantzitsua delako harrobia zaintzea. Eta xakean hori funtsezkoa da, xakelari bat betirako baita xakelari. Eskola-kirolerako programak bere lana ondo bete du, baina bada garaia bere potentziala esploratzeko eta ustiatzeko: mailaka haur euren eskoletan xakean aritzen dira Gipuzkoan eta lortu behar duguna da, hain zuzen ere, ehunka haurrek beraien herriko klubetan jokatzen jarraitzea.

Jakin badakigulako araudiak doitu behar direla, gardentasuna hobetu behar dela eta Federazioa kudeatzeko modua berri behar dugula.

Gure proiektua arrakastarekin aurrera eramateko Federazioak esperientzia eta baliabideak dituela uste dugulako.

GURE PROGRAMAREN MUINA

1. HOBEKUNTZAK TXAPELKETEN ANTOLAKUNTZAN

- Euskal Ligarekiko existitzen diren jokalarien iguerak eta jaitsierak mugatzeko araudiaren aldaketa bultzatuko dugu, gure eskuduntzen esparruan.
- Partida motelen txapelketa ofizial guztiak FIDE Elorako baliogarriak izango dira.
- Partida Azkarren Gipuzkoako Zirkuitoa sortuko dugu, sariak esleituz, klub ezberdinek txapelketak antola ditzaten, eta hartarako haien parte hartzea bultzatuko dugu.
- Partida Aktiboen Sub-20 Festibala berreskuratuko dugu.
- Txapelketa ofizialetako partiden digitalizazioa progresiboki sustatuko dugu.
- Partida azkarren on-line txapelketak antolatzeko aukerak bilatuko ditugu.

2. ESKOLARTEKO TXAPELKETAK

- Parte hartzaile kopuruak behera egin duen eskualdeetako zonalak bultzatu eta existitzen direnak indartuko ditugu.
- Haurrentzako xake festen antolaketa finantzatzeko dugu.
- Teknifikazioaren irizpide orokorrak arautuko ditugu, teknifikazio zentroarekin sinatuko dugun hitzarmenean barneratuz, sistemak duen gardentasuna hobetzeko helburuarekin.

3. KLUBENGANAKO GURE KONPROMEZUA

- Aurrekontu-sail berezia sortuko dugu, klubentzako jokalarientzako entrenamendu klaseak sortzeko.
- Komunikabide lokaleko klubek duten harremana sendotzen lagunduko dugu, xakearen inguruko berriek presentzia handiagoa izan dezaten.
- Klubentzako jarduerak finantzatzeko babesle lokalak bilatzen lagunduko dugu.

4. EUSKARA

- Euskaraz idatzitako hezkuntza-material berriaren osaketa bultzatzeko dugu, zenbait herritan dagoen gabeziari erantzuna emateko.

5. XAKEA, HARROTASUNERAKO ARRAZOI

- “Donostia 2016” kultur hiriburuaren ospakizunaz baliatuko gara xakearen alderdi kultural, historiko eta pedagogikoak hedatzeko.
- Komunikabideetan Gipuzkoako xakearen ezaguera eta onspena bultzatzeko ditugu.
- “Xakearen Eguna”-ren ospakizuna bultzatzeko dugu, berau antolatzeko prest dauden herrietan.